AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2281

287/2013 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jesús Muñoz Fernández jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerente izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzen duena.

Aztertu dugu Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 10eko 39/2013 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2013ko otsailaren 5eko EHAAn (25. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jesús Muñoz Fernández jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Jesús Muñoz Fernández jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Bilbo Eskualdeko Familiako Mediku postu funtzionalaren 8286 plazaren jabea dena, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerente lanpostua betetzeko hautatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesús Muñoz Fernández jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerente izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Jesús Muñoz Fernández jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzea, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.